



www.alberdania.net | <http://alberdania@alberdania.net>

ALBERDANIA

Istillaga plaza 2, beheka C, 20304 Irun Tel: + 34 943 63 28 14

Izan zitekeena

Gorka Etxebarria Dueñas

Bilduma: Saiakera

Generoa: Saiakera

Formatua: 14 x 20,50 cm.

Orrialdeak: 358

Koadernaketa: paperezko azala

Argitalpen data: 2026/09/02

ISBN: 978-84-9868-968-6

SALNEURRIA (BEZ gabe): 21,63 €

SALNEURRIA (BEZ barne): 22,50 €

**TRANSIZIOA ETA FRANKISMO-OSTEA,
EUSKAL NAZIO ASKAPENERAKO
MUGIMENDUA, EZKER ABERTZALEA, EUSKAL
POLITIKAREN HISTORIA**



Sinopsia

Memoria eta errelatoa bezalako hitzak ahoz aho dabilzan garaiotan, ohikoak dira historiaren interpretazio autolegitimatzailerak, iragana interpretatzen dutenak orainaldiko arrazoia atzera proiektatuz, zertan asmatu zen eta zertan ez argi utziz. Gorka Etxebarriak bestelako begirada batez berrikusten du Herri Batasunaren historia: sententziarik emateko asmorik gabe, une bakoitzean jokoan zeuden indarrak eta tentsioak xehe aletuz, izan zitezkeen —baina izan ez ziren— beste historiak ere izendatuz.

1978koa da koalizioaren sorrera-unea, baina egilea atzera-aurrera dabil etengabe, une haren erro historikoak ahalik eta konplexutasun handienaz harilkatu nahian: 60ko hamarkada itzultzen da zenbaitetan, frankismo hasieraraino ere bai noiz edo noiz, ostera ere 70-80ko hamarkadara etortzeko. Joan-etorri horretan, hainbat galdera plazaratzen ditu: zein korrante ideologikok eragin zuen Herri Batasunaren sorreran? Nola interpretatu zituzten Franco hil osteko baldintza historikoak? Zer esan nahi zuen Euskal Herri Langileak, eta nola eraiki zen subjektu hori? Zer harreman izan zuen koalizioak tradizio antifrankistarekin, langile-mugimenduko eta auzo-elkarteetako kultura asanblearioarekin, euskalduntasun existentzialistarekin, edota kultur munduko mugimendu berrieekin?

Nekez topa daiteke orriotan erantzun definitiborik. Liburuak, ezer egitekotan, irakurlea gonbidatzen du garai hari *barrutik* erreparatzera, orduko zentzu-markoak eta horizonteak ahal bezainbat diseekzionatuz. Orriz orri, gertakari zehatzak eta protagonisten bizipenak txirikordatuz, kultura politiko baten askotariko dimentsioak zabaltzen dira, esplorazio-eremu batean nola. Eta eremu horretan historia etengabeko disputa da, garaian garaiko protagonistek beren ekinez eraikitzen duten hari hauskorra.

Liburu honetan barneratzen denak, proiektu politiko baten erroez gain, topatuko du hortik haragoko zerbait ere: Euskal Herriaren historia garaikideko aldi konplexu eta sutu baten erradiografia sakona

Egileaz



Gorka Etxebarria Dueñas (Gasteiz, 1988)

Historia Garaikidean doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatetik. Nazionalismoaren historia, espainiar trantsizioa eta zinemako estereotipo politikoak landu ditu. *Sozialismoaren historia labur bat* (Gite-lpes, 2016) liburuaren egilea da.